

NAFAR ESTATUA

Nafarroako lurralde okupatuak (2000.12.5)

Nafarroa, gure estatu historikoaren berreskurapena ez da lan erraza. Ezin dugu espresio folkloriko batera mugatu gure helburu politikoak bakarra eta berehalakoa izan behar du. Helburu honek utziko digu, benetan, demokrazian barneratzea.

Gure arteko demokrazia, estatua berregituratzeak bakarrik ekar dezake. Estatu konkistatzaile eta okupatzaileek indarkeriaz ebatsitako estatuaren oinordekoak bezala.

"Gaur inoiz baino gehiago, Nafarroako Estatuaren eraberritze eta garapen material eta formalak, benetako estatu oso bat lortu arte, izan behar du eskatzen den strategiaren gune neuralgikoa. Eta estatu horrek orainak onartzen eta gomendatzen dituen mota guztietako funtzio, konpetentzia eta gobernua izan behar ditu".